

XXI. mendean HARRIA ASMATUZ



Peru Calabaza Saban
IKERTU 2017

XXI. mendean HARRIA ASMATUZ

RITUAL KOMUNITARIO BERRIAK

SARRERA

Europa aldean bizi garen mundu moderno ala posmoderno honetan badirudi batzuetan arrainak pezeran bezala gabiltzala, norabide zehatzik gabe eta zirkuluak bezala egiten. Informazio eta estimuluez gainezka, zerbait onuragarri egitekotan, ez dakigu ia inoiz garrantzitsuagoa ote den munduko gerra eta goseteak konpondu nahian dabilen Gobernuz Kanpoko Erakunde batekin bat egin, gure etxe azpian dagoen eskaleari dirua eman, gure guraso eta aiton-amonak zaindu ala geure beharrian oinarrizkoenak egokiro zaintzeaz arduratu...

Era berean, gure bizitzan gertatzen diren unerik garrantzitsuenak nahiko modu berezi eta arrotzean bizitzen ditugu: kasu gehienetan ospitaletan jaio eta hiltzen gara (eta ez dira bereziki oso leku goxoak), eliza katolikoak proposatzen dizkigun errito eta jai egunak ospatzen ditugu nahiz sinistunak ez izan...

Horrekin batera ere, eta lehenago ez bezala, geroz eta gehiago mugitu eta komunikatzen gara, leku eta harreman berrietan etengabe sartu eta irtetzen gara, sintonizatzeke asti nahikoa ere hartu gabe... eta panorama honekin nahiko galduta ibiltzen gara.

Gure seme-alaba jaioberria jendartean aurkeztu eta izena emateko bataio erlijiosoa ez den beste zeremonia bat? Lagun edo senide hurkoa hiltzerakoan, modu berezi eta atseginean agurtu nahi genuke, dolu osasungarriago bat biziartzea bideratuz...? Ba ote du zentzurik ezkontzak modu klasikoan ospatzen jarraitzeak? Ezkontzeko bezala ere, banatzeko erritual atseginen bat bilatu beharko genuke, hainbeste gertatzen den eta hain mingarria suertatzen den gertaera denez gero...?

Asko dira planteatzen ditudan halako kontuak... Urteak daramatzat proiektu honi bueltak ematen eta iruditzen zait badela garaia garatzeko eta lehen prototipoak sortzen hasteko.

Katalogo/web batean aukera eskaintza bat egin, eta ausartu gaitezen hurbileko jendearekin praktikan jartzen gure bizitzaren une garrantzitsuak hobeki ulertzen eta zentzua ematen lagunduko diguten erritoak.

Jar gaitezen XXI. mendeko gure beharrezko errito berriak asmatzera.


ZENTZUA DAUKA KULTUR EGITASMO BEZALA AURKEZTEA PROIEKTU HAU?

Inon zentzua baldin badauka, hemen da. Bizitza desakralizatu dugun bezala, arte sorkuntzarekin ere antzera gertatu da, estetika hutsa ala istorioak kontatze hutsa bilakatu baitugu, kultur kontsumo hutsa, azal azalekoa. Artista benetakoak, komunikatzaile hutsa ez denak, inspirazioa bestelako konexio batetan bilatzen duenak, ordea, ondo daki sakralitatea hortxe dagoela, beste zerbaitekin harremana izan behar dela funtsezko edozer sortzeko.

Artea, bizitza eta komunitatea elkarrekin uztartu nahi baditugu, bide polita da horretarako bizitzaren une berezietan elkarrekin ospatzea, modu bizi batean, eta ez eginda datozkigun egitura biziatu eta esanahibako horien barruan.

Erritualetan parte hartzen duten elementuak, bestalde, antzerkia, kantua, dantza edo poesiarekin estuki lotuta daude. Erritual bat antzerki hutsa da, beste arte guztiak bere egiten dituen antzerkia, publikoa ere parte egiten duena, konektarazten gaituena.

Hautu poetikoak egin behar dira erritual berri hauek asmatzerakoan, eta hautu poetiko hauetan sinbolo partekatuak bilatu behar dira, eskaria egiten duen pertsona eta komunitateari dagozkionak.



NOLA AURRERA ERAMAN

Erljio batek bere erritoak finkatu, hedatu eta orohar modu berberean exekutatzan baditu ere, beste zerbaitetaz ari gara hemen. Ez dugu erljio berririk edo sektarik sortuko inolaz ere.

Erritualeu sailkapen bat egingo dugu eta proposamen ezberdinak bilduko dituen katalogo moduko bat osatuko dugu.

Baina praktikan jartzerakoan, beti eskatzailearen ezaugarri, gogo eta beharizanen arabera moldatuko dugu erritoa. Leku, denbora, objektu edota hitzik aproposenak aukeratu beharko dira ospatu nahi dena benetan zintzoa eta eraginkorra izan dadin.

Garrantzitsuena zera da: ez izatea hautu estetiko hutsak, baizik eta zerbait sakroa.

Errito batean ALDAKETA bat gertatzeko espazio eta denbora berri bat topatu behar dira, eta espazio/denbora horiek aldatu egin behar dira espazio/denbora berriak sortzeko.

Horretarako intuizio eta asmamen poetikoa izango ditugu baliabide, beti ere errituen oinarritzko osagarriak zainduz.

Elementuen esanahiak interpretatu behar dira, eta zentzua eman behar zaio osotasunari.

IGAROTZE ERRITOEI BURUZKO BESTE GOGOETA BATZUK

Erritual orotan zerbait hiltzen da, jaiotzera doanari lekua eginez. Zerbait amaitzen da, amaitu behar duelako, eta berriari lekua egiten dio, eta hori ospatzen da.

Transizio bat dago aro berri batera.

Naturan horrela da: dena eraldatzen da, materia batetik bestera doa, izaki bizidun bat hil eta hortik beste batzuk elikatzen dira eta zikloak hor darrai...

Eraldaketa beti.

Naturarekiko lotura hori bilatzen dugu erritoetan, Gaia osotasun horren parte garela nolabait, eta galera baten trukean beste zerbait datorrela ulertzea, eta onartzea, eta ez geratzea hor kateatuta, minduta, geldi.

Zentzu honetan, dibortzioak, banaketak -eta agurrak orohar-, bereziki interesgarri zaizkit. Askotan hain txarto egin ohi dugu... Emango luke zerbait hiltzen dela ezer berririk jaio gabe, edo halako zerbait, eta horrek egiten du traumatikoa... Frakasoak, hitz eta sentsazio terrible hori! (inoiz gertatu behar ez zuena gertatu balitz bezala). Hala ikusita... muturreraiono eramanda... harreman guztiak amaitzen dira txarto! (Haserre edo agurrik ez badago, uneren batean norbait hil egingo da, beraz txarto amaitzen da...)



BALIZKO GURE IGAROTZE-ERRITUAK

Sailkatzeko orduan, badira pertsona bakar bati (ala biri) bakarrik dagozkien errituak, eta badira komunitate osoari bere horretan dagozkionak, baina orohar egoera pertsonal baten sozializazioa egiten duten erritoak ospatzeko ohitura dugu. Denetan dago 'ni-aren heriotza eta pizkundera' elementua. Batzuek ohiko erritual sozialen berrasmakuntzak izango dira, beste batzuk naturarekin lotuagoak, eta badira ere egoera berrien aurrean guztiz asmatu beharreko errituak ere.

- Jaiotza / Bataioa
- Nerabezaroan sartzea
- Ez kongabe-agurra
- Ezkontza
- Hileta
- Berriz biltzea
- Lehen zita
- Urtebetetze bereziak
- Dibortzioak
- Bestelako banaketa eta hausturak
- Etxe berri baten inaugurazioa
- Zamak arintzea
- Hilerokoaren Ongi Etorria nerabezaro hasieran
- Hilerokoaren Agurra menopausiarekin batera
- Transgeneroentzako ritual bat: Gizonari Agur, Emakumeari Kaixo / ala alderantziz, jakina.
- Urtaro aldaketak
- Gabon Zaharra
- ...

ERRITUALEN EGITURA

Oinarri antropologikoa eman nahi diot egitasmo honi, gaur egun gure garaiaren seme-alabak garela siniste aldera jotzen dugun arren, gizakiongan eragina duten sinboloen indarrak hortxe baitirau. Asmakizun poetikoak gero etorriko dira, baina oinarri sendo bat jarri nahi diet azpian, esan bezala ez baititugu suziriak egin nahi.

Horretarako, besteak beste, Igarotze-Erritoak aztertu dituzten Arnold Van Gennep (Los ritos de paso) eta Victor Turner (La selva de los símbolos) antropologoen liburu klasikoetan murgiltzen ari naiz, erritual ezberdinek, munduko kultura ezberdinetan eta mendetan zehar izan dituzten osagaiak aztertu eta ulertze aldera.

Erritual batek hiru aldi ditu:

- Aurrekoak
- Liminalitatea
- Ondorengoak

Horietatik, argi eta garbi liminalitate zati horrek dauka pisurik handiena, berau delarik errituala emankor izateko funtsezkoa. Aurretik une horretarako prestakizunak daude eta ondoren gizarte aurreko aurkezpena.

Liminalitate aldi horretan denbora profanoa apurtzen da eta bapatean erritualizatuta dago dena. Aldaketarako aproposa den espazio eta denbora batean gaude. Sakralitate elementu bat sortzen da bilatzen den aldaketa hori gertatzeko. Aldaketa bat gertatzeko une eta lekurik aproposena bilatzen da.

Antzerkia erritual bat den heinean, funtzioa bera litzateke periodo liminal hori.

BIDERAGARRITASUNA

Posmodernitatean likidoa ez den zerbait asmatzea... Harria Asmatzea... Asmakizun mundiala da! Izan ere... dena baitago errotzearen kontra gaurko munduan.

Idea handia dela esan didate guzti hau ahopetik kontatu didan guztiek. Izan ere, gertakizun garrantzitsu baten aurrean eskaintzen zaigun errituala kamutsa eta arrotza sentitzea askori gertatu zaigun zerbait baita.

Beste gauza bat da halako zerbaiti dagokion neurriarekin asmatzea. Enpresa handi batek harrapatuko balu, urrea egingo luke agian. Nola bideratzen dira halako proiektu handiak?

Nik oraingoz lehen pausutxoak eman nahi ditut. Ikerketa batzuk, eskaintza batzuez osatutako katalogo modukoa osatu... eta baita probasaio praktikoren bat ere. Gero gerokoak...

Egitasmo osoa euskaraz garatzeko asmoa daukat, gerora gaztelaniara itzultzeko aukera kontutan hartzen dudalarik.

NIRE IBILBIDEA



PERU CALABAZA SABAN:

Ospitalean jaioa, familiak behartuta bataiatu ninduten amak esaten didanez, ez nuen jaunartzerik egin, eskola osoa ikasi nuen -bere erritu guztiekin- unibertsitateraino (Informazio Zientziak), nerabegaroko mugarrira oraindik guztiz gainditu gabeko horietarikoa naiz, ez naiz inoiz ezkondu, ezta hil ere, nahiz inoiz hurbil ibili. Hamar urteko alaba daukat. Hainbat lagun eta senide agurtu ditut bizitzan zehar, dela kanpora zihoazelako, dela hil egin direlako. Ia beti kamuts egin zaizkit agurrak.

2003. urtean "Umbral" izeneko antzerkirako testu bilduma idatzi nuen, Jaurlaritzaren Kultura sailaren diru laguntza baliatuta. Igaro beharreko muga horiei buruzko gogoeta etengabea izan zen hura, umore-ikuspegitik egina bazen ere, dudarik gabe proiektu honi ekiteko aurrekari argia izan nuen.

Antzerki-idazle bezala ibilbide oparoa egin dut hainbat talderekin: FTI-Antzerkiola Imaginarioa (8 Olivetti Poetiko, Mis rarezas dirías tú, La niña que sueña lunas...), l'Alakran (Optimistic vs. Pessimistic, Kairos, Sisyphes Et Zombies), Pikor (Zapaldu Marra, QTMeto!), la elemental (Infame)... baita zuzendari bezala ere. Gasteizko TAEn antzerkigintza eta Barakaldoko BAIn zuzendaritza ikasita, dantzan egitea ere oso gustoko dut. Horrez gain, performanceak edota Antzerki Itsua izeneko egitasmoa gauzatu izan ditut, eta teknikari bezala ere aritua naiz.

Hala ere, antzerkiaz gain gauza interesgarri asko egin ditut bizitzan, eta besteak beste Hezkuntza Aktiboan, Kazetaritza Subertsiboan edota Herrigintza Maitakorrean aritu edo aritzen naiz. Herrigune Leioa Ikas-Komunitatea proiektuan lanean aritu naiz hamar urtez, Bizilagunen Komunitateekin ere proiektuak egin izan ditut, baita euskararen erabilera sustatzeko egitasmo berritzaileak egin ere (Euskara maitasunetik, mesedez; The tortil is prest). Non Stop Jolasa proiektua dut orain eskuartean, eta uneoro jolasterik ez badut ez dela nere iraultza aldarrikatzea gustoko dut.

LANTALDEA:

Oraindik lantaldea itxi gabe badago ere, aholkulari eta laguntzaile sare handi samarrarekin batera burutuko dut egitasmo hau.